

Basoak mundu mailako biodibertsitate eremu garrantzitsuak dira eta habitat natural zein maneiaturakoetarako baliabide biologikoen emaitza dira. Hala izanik, baso helduak izaki espezialisten babesleku dira, horiek baitira beste baso motatan aurki ezin daitezkeen egitura edo habitat bereziak dituztenak. Proiektu honetan Artikutzako (KBE) Kontserbazio Bereziko Eremuaren baso-hegaztien aberastasun ereduak ikertu dira. Baso-hegaztien aberastasun ereduak ingurumen aldakortasunarekin erlazionatu dira, honela identifikatu nahi izan dira paisaia osatzen duten elementuetatik zeinek dituen hegazti-faunaren aberastasuna azaltzeko baldintzarik onenak. Helburua kudeaketa neurriak ezartzea da, horiek baitira elementu horien indartzea eta baso-hegaztien dibertsitatea handitzen lagunduko dutenak. Helburua basoaren egitura-konplexutasuna neurtzea izanik, 140 laginketa puntu ezarri ziren erreserba osoan zehar. Puntu hauetako paisaia aldakortasuna neurtzeko, Informazio Geografikoko Sistema bidez erauzitako datuetan oinarrituta, 200x200m bitarteko gelaxkak atera ziren, eta eskala finean (20 m radioko) habitat aldakortasunak neurtu ziren. Apiriletik ekaina bitartean laginketa puntuetan 37 baso-hegazti espezieetako 2613 ale zentsatu ziren. Hariztiak eta hostozabalen birlandaketak izan ziren aberastasun eta ugaritasun handiena izan zutenak, pagadiak eta koniferoen birlandaketek aldiz, balio txikiagoak azaldu zituzten. Denera soilik 14 espezie izan dira egindako behaketetatik %90 a osatzen dutenak. Ugarien diren 16 espezieak, banaketa ereduak kalibratzeko erabili dira. Eredu hauek espezie bakoitzaren presentzia ingurumen aldakortasunarekin erlazionatzeko balio izan dute. Espezie gehienek hariztia eta hostozabalen birlandaketen portzentajearen arteko erlazio positiboa izan dutela nabarmendu da, aldiz garaieraren arteko efektua negatiboa izan da. Habitat aldakortasunean dagokionean, espezie gehienek behe-basoko zuhaixka aberastasunaren eta urrututako adaburu ugaritasunaren arteko erlazio positiboa izan dute. Dinamika eta baso-maneku eszenatoki desberdinetan aberastasun iragarpenek aditzera ematen dutenez, eszenatoki guztietan aberastasun aldaketa egon liteke, baina proportzioan txikiagoa izango litzateke “berreskuratze naturala” eta “baso ertzeko degradazio” eszenatokietan “hariztiaren handitzearenean” baino; honetan gaur egungo baldintzekin alderatuz, hegazti-faunaren aberastasun aldaketa handiagoa sortuko litzateke. Gehigarri moduan proiektuan beste lanketa hauek egin dira: (1) ur- ibilguztako hegazti urtarren presentziaren estimazioa, (2) Pizidoen presentzia estimazioak, (3) Artikutzan antzemandako espezie arraroen zerrenda eta (4) emaitzen hedapena.